

BAKOITZARI BEREA, JAINKOAREN LEGEA Frai Bartolomeren ohoretan

Ez nuke nahi «gatz-ozpinduba», mingostasuna inoren gainera isurtzerik. Alabaina oraingoan Augustin Zubikarai-k KAR-MEL aldizkariaren azken alean Frai Bartolomez idatzitakoak eman dit hizpidea. Ez, horregaitio, idazle ondarrutarraren idazlana goresteko.

Dirudienez, bere arlotik at ibili da gure idazlea. Ez ohizko ziurtasunez, ez betiko sen baten. Horregatik Frai Bartolomeri direnak eta ez direnak egotzi beharraren egotzi beharrez, hainbatetan irrist egin du nabarmenki.

Gerorako utzi gabe, lehen-lehenengorik ekiten dio erasoari: «Fedean integrista zan aña, euskeran anarkista. Arau batzutan estu, bestetan nastetsu».

Bai, etorritz eta errimaz gartsu, baina ez neurritsu. Galgarik gabeko abiadan hasi zaigu Zubikarai jauna... Frai Bartolomek, bere izaeragatik edo, hitzei indarra ematearren, bokalak ugaritu egiten omen zituen: «Bokaletan ugari, baten ordezt bi errezago (-), gogorra zalako itzari ere indar emoten zaletua».

Azkue eta Txomin Agirre-rekin parekatzen du, hiruren artean berez ez lukeela alde handirik egon behar adieraziz, baina... «Agirre'k nekez «zabaltzen» ditu itzak, nasaitu, gizendu, bokalei indarra billatu nairik. Azkue'k sarriago. Frai Bartolome'k geiegi».

«Badirudi bere eliz-itzaldietan pulpitoa jo ta durundia ataraten ekian antzera, itzei ere durundi antzekoa, oiartzuma billatu ta atara eragin nai izaten eutsela, ukabilkaden otsa eta itzen orrua, era berean, indarkeriz eta gogorkeriz sartu eitezan entzuleetan.

Bigundu gabeko baserritar atxurlaria da Frai Bartolome euskeraren alorrean. Jorratu gabea».

Irakurle zentzudun eta argiaren kontu uzten dut azken esaldi hau. Dena dela, ondoren datozenak ere ez dira igazko hai-zea. Beheraxeago, ordea, zera dio:

«Eta guk jokera eta erabilkeraren kakoak aurkitu ditugu akatsak ala lege diran esaten ausartu barik».

Beraz, zartailua eskuan eta itsumustuan, bizkaiera klasikoak izan duen idazlerik bikainenetarikoari erasoka! Akatsak ala lege diren jakin gabe nola bota horrelako ahapaldiak? Komatxo tartean hor aipatutakoaz aski ez bailitzan, hona lumatik itzuri zaizkion beste zipristin batzu:

«Gauza bat igarri dogu: berak «kondenetan» eban dantza nastu ta loia darabillala izkuntzan. Igarri gabe pekatuara croaten ditun dantzak eroaten dabe bera ere garbi-garbia edo beintzat ereduzko ez dan izkuntzako dantzara.

«Pekatuko bide» batzutan eta bestetan integrista baten eutsikeri ta dollorkeriak aurkitu doguz, izkuntza aldetik, bere lanean».

Pixka bat laburturik, baina hitzez-hitz egin nahi izan ditut aipamenak, irakurleari erizpide ziurrak eskaintzearren.

«Fedean integrista zan aifia, euskeran anarkista»

Euskeran anarkista ez behintzat, geroxeago agertuko dudanez. Fedean integrista...? Horretan egiantzeko eritzirik neure baitan taiutzea zail egiten zait. «Zenbat buru, hainbat aburu» esanez, bere horretan utzi beharko genuke, agian. Haatik, nire ustez, ez

litzateke zilegi Frai Bartolomeren erlijio eta moral pentsa-
-moldea Vatikanoko II.aren argitan epaitzea. Hura Trentoko
Kontzilioaren garaikoa zen eta, ageri denez, Kontzilio hura du
gidari eta argi emaile. Beraz, bakoitza bere belaunaldiaren bar-
nean kokatu beharra legoke, eta erkaketak egitekotan haren ga-
raikoekin egin, inola ere ez gaurkoekin eta oraingo ikuspegiz.
Oraingo ikuspegiz, idazle den aldetik ezagutzen dugu batez ere,
Juan Antonio Mogel eta P. Añibarro-rekin batera bizkaiera lite-
rarioaren sortzailetzat bait dugu. Idazle zena badakigu; Karmel-
darren artean, orduko ohitura zenez, komunitate bakoitzean
sermolari bat eta idazle bat egon ohi zen beren-beregi horretar-
akoxe izendatua. Markinako komentuan, 1816.etik 1818.era
arte gutxi gorabehera, Frai Bartolomeren gain egon zen bai ze-
regin bata eta bai bestea. Hala ere bi karguetarik hari bene-
-benetan zegokiona sermolaritza zela dirudi. Idatzi zituen lanak
ere, euskerazkoak behintzat, sermoigintzari begira idatziak dira.
Argi eta garbi adierazten du hori Icasiquizunac saileko I. libu-
ruaren sarteran. Jainkoaren Hitza herriari euskaraz iragartze or-
duan, apaizen jokaera negargarria omen zen. Euskalgaiztorik eta
mordoilorik mordoilena! Dena erdal hitzez zipristindua; arrotz-
-moldez ehoa. Orduko idazleek -eta gure karmeldar fraideak ere
bai- sarri aipatzen dute gaitz hori, garrazki aipatu ere. Baina alfe-
rrik erostaka eta hileta jotzen ihardun gabe, lanari ekin zioten
eta ordura arte ia inor sartu gabeko oihan itsuan lehen urratsak
ematen hasi. Horrela, elizgizon eta batez ere sermolarien lagun-
garri eta euskara idatziaren onerako, liburu mardulak burutu zi-
tuzten. Herriaren katekesia (ez haurrena, helduena baizik) dute
helburu. Mogelen PERU ABARKA dugu, behar bada, salbuespen
bakanetarikoa, baina honek ere, zeharka baino ez bada ere, erli-
jio-mezua ematea beti du gogoan. Sermoigintzaren estiloa edo
antzekoa da liburu horietan darabiltena. Hortaz, estilo hori teo-
logi ikasgeletakoa baino latzagoa eta garratzagoa zena edonork
daki, garratzasun horren durundua ia geure egunotaraino heldu
zaigularik.

Beraz, Frai Bartolome hertsia eta garratza ageri zaigu
oraingo irakurleoi, baina ez pixka bat aurreragoko Mendiburu,

Kardaberaz eta beste sermolariak baino hertsiago eta garratzago. Besterik gabe «fedean integrista»tzat jotzera ni neu ez nago, beraren garaian eta sermolari bati zegokion zereginean kokatuz epaitzen badugu. Sermolari peto-pettoa eta suharra zen eta estilo hori eta bere garaiko pentsamoldea nabari zaizkio alde guztietarik; horixe bakarrik.

«Euskeran anarkista. Arau batzutan estu, bestetan nastetsu»

Hau horrela, lumak eskuan dardar egin gabe, idaztea ere...! Frai Bartolomeren idaztarauetaz azaletik baino ez bada ere antzematen diena, ezin horrelakorik esan. Hain zuzen ere, alderantziz da: Adizkietan jori, aberats; deklinabidean, hitzen forman, atzizkietan eta abar zehatz-mehatz, doi-doi Juan Antonio Mogel ez gero finkatuz zihoazen arauetara moldatuz. Gutxi dira honek bezain ziur ekialdeko bizkaiera zaharra darabiltenak. Deklinabideko kasuak banan-banan arakatzea luzeegi bezain aspergarri litzateke. Baina esan dezagun hainbat aldiz errepikatu den instrumental / soziatibo kasuaren zer hori: sing. -gaz eta pl. -(a)kin, hutsik gabe betetzen du Frai Bartolomek, inguru honetan herriak ere joera hori bait du.

Hitzen amaierako K

-TIK / -DIK ablatiboa da gure idazleak «k»rik gabe uzten duena, hots, -TI / -DI eginez (guztietati, inundi). Biziduna denean, -GANIC egin ohi du eta ez -GANDIK, baina beti «k» eta guzti. -GAI TI zergatikakoa (motibatiboa) ere beti «k»rik gabe. Juan Antonio Mogel eta Anibarro-k ere azken kontsonanterik gabe emateko joera dute. Beraz, zenbait joera berdintsu finkatuz eta nagusituz zihoazela orduko idazleen artean ikusten dugu. Luis Mitxelena-k arazo hau ere ikutzen du bere FONÉTICA HISTÓRICA VASCA. Honela dio:

«Es interesante el problema que plantea el suf. de ablativo -tik, que presenta una variante -ti en vizc. y sul., que se repite en -ga(i)ti junto a -ga(i)tik «por, a causa de». Resulta difícil admitir una caída en posición final cuando otros sufijos, y en par-

ricular -(r)ik que une las funciones de ablativo a las de partitivo, carecen de variantes sin oclusiva final.

Este -ti puede identificarse sin gran temor con el suf. que añadido a nombres de determinaciones espaciales forma derivados con función nominal y adverbial: beheiti, guip. vizc. barruti, gaindi (sul. gáinti), goiti, urruti «lejos» (...) La oclusiva final no es más que un elemento sufijado a -ti, o lo que queda de él, sin que esta adición fuera común» (F.H.V. 286. orr).

Beraz, hemen ez dago akatsik ez nahasterik, horrelaxe bait zen forma jatorra, bestea erantsitako atzizki batetatik etorritz. Hurrengo orrialdean azaltzen du Mitxelena-k zein zen atzizki hori.

F / P kontsonanteen arazoa

Lehenago ere, auzi hau nola ebatzi zuten bizkaiko idazle zaharrek, argitzen ahalegindu nintzen (Karmel 1985 - 2). Hona hangoa laburturik:

«Bizkaierazko idazle zaharregana joz gero, joera bietakoak aurkituko ditugu: «f»ren aldekoak eta «b» fonema arrotz eta alpe-rrikotzat dutenak. Gure egunotan «h» dela eta dugunaren antzeko tirabira zutela dirudi. Juan Antonio Mogel eta Frai Bartolome «f» fonema onartzen ez dutenatarikoak dira bete-betean. Moge-k, euskaldun hutsen ahoskatze modua dakar arrazoitzat eta Frai Bartolomek, jakintsuak eta euskaldun hutsen ahoskatze modua ere bai. Anibarro «f»ren alde dago argi eta garbi, Euskal Herriko tokirik gehienetan ondo sustraitua zegoela adieraziz.

ICASIQUIZUNAC deritxon liburuaren sarreran irakurleari eritziak eskatzen dizkio Frai Bartolomek. ICASIQUIZUNAC saileko lehen liburuaren harreraz jakitun egon nahi luke, baita eritziaren batzu jaso ere, bigarren liburuan akats berberetan ez erortzeko. «F»ren ordeaz «P» erabiltzearena egozten diote. Hona gure idazlearen erantzuna:

«Eguija da, erantzun eustan batec: «P» iminten nevala «F» lecuban: baina, jaquitunac dinuenez, ta euskaldun utsai entzuten

jacuenez, ez dauca «f» cer eguinic geure eusqueran» (Icas. II).

Frai Bartolomek zeharo baztertzen du kontsonante hori, eta erdarazko «f»-dun hitzak ugari sartu arren, «p»-z trukatu ohi ditu beti: opendidu, oitura imparniac, Propeta paltsuen, San Francisco Sales, opicijoz, popuertza, apicinoia, paltia, paltau, pies-tia, pavore pandanguan, compescetan, prutia, Copradijeetaco, pornicacinoia, pamelija, empin. Beraz, jatorrizko hizkuntzan «f» bere-berea duen hitza izanik ere, «p»-z idatzirik ematen digu euskaraz. Nik aurkitu dudana hitz bakarra «f»-z idatzirik hau da: «Faraonen escu gogorretati...»

Loturazko B

Zubikarai-k honetaz Azkue-k dioena aipatu ondoren, honako hau esaten digu:

«Frai Bartolome, onetan, nastetsua da. Orri berbertan aibat izenetan «b» sartuko dau eta orri berbertan, izen berbertan, ez dau sartzen. Ba dirudi, gai onetan, bietara jokutzen dabillala, zegaitik egiten dabena bereiztasun edo ezaugarri berezi gabe».

Ez, ez da horrela, ezta antzekorik ere! Frai Bartolomek, «f» guztiak «p»-z trukatzeari hutsik egin gabe jokutzen duenez, hemen ere gauza bera. Baina hori egiteko aurreko silaba (ezkerrekoa) «u»-z amaitzen dena izan behar. «U»-z amaitzen den silabari, edozein bokal eskuin aldean duela ere, beti hutsik egin gabe erantsiko dio loturazko «b» hori. Silaba «o»-z amaitutakoa eta eskuinean «a» bokala datorrenean, ordea, «-ua» egiten du beti eta ez «-oa». Hemendik dator, nik ustez, Zubikarai-ren patzen dituen hitzetan beti betetzen du arau hori eta aipatzen ez dituenetan ere bai: «dauenarentza» (8), «eguin daueenac» (9), «esan dauee» (9), «merciduten dauena» (12)... kasu horietan loturazko «b»-rik ez du tartekatzen, «u» bera kontsonante-zeregina betetzen dagoelako, ingurune horretan «u» = «v» bait da. Augustin-ek aipatzen dituen hitzetan bi daude gaizki jasorik: «Ebanjelio» (9), Frai Bartolomek «Evangelijoco» eta «diabruagaz» (79), Frai Bartolomek «diabrubagaz». Jakina, «u»-ren ondorik bokala datorrenean loturazko «b» tartekatzen duenez, «i»-ren ondorik

ere «j» edo yod loturazkoa sartu ohi du beti. Eta guzti honek bokalen harmonia deritzon gaira garamatza:

Hiatoan, hots, diptongoa osatu gabe elkarren ondoan gertatzen diren bokalen artean aldaketak eragiten dituzte zenbait idazlek, kidekoak ez diren bokal-bikoteen ordez kidekoagoak sartuz. Hau, lexemari artikulua eransterakoan gertatzen da batez ere, baina baita bokalez amaitutako lexemari bokalez hasten den morfema gehitzerakoan ere. Hitz-barnean bakanagoa da, baina eman daiteke, «joan» aditzean, adibidez, «-OA»ren ordez «-UA» eginez NUA.

Ikus ditzagun bokal ezberdinez amaitutako lexemari «a» artikulua eransterakoan gure idazleak nola lortzen duen bokalen harmonia hori:

-A + a = -ia (sing.) nesquia

-A + ak = -aac (pl.) nescaac

-E + a = -ia (sing.) echia

-E + ak = -iac (pl.) echiac

-I + a = -ija (sing.) choriija

-I + ak = -ijac (pl.) choriijac

-O + a = -ua (sing.) gurasua

-O + ak = -uac (pl.) gurasuac

-U + a = -uba (sing.) buruba

-U + ak = -ubac (pl.) burubac

Ondorio hauek atera daitezke eskema honetatik: «A» itsatsia duten hitzei artikulua eransterakoan, singularrean, bizkaierazko erregelaren arabera, -EA eman beharko zukeen, baina inguru honetako idazle zaharrek ez dute onartzen bikote hau eta -IA egingo dute, pluralean bi bokalak -lexemarena eta artikulua-na- mantenduz. Inesiboan ere biak mantentzen dira: plazaan (sing.); pluralean, berriz, -A + e = -ee: plazaetan = PLACEETAN.

-OA bikotea ez du onartzen gure idazleak, -UA eginez Ez «a» ondorik duenean soilik, baita «e» duenean ere; beraz, -OE

bikotea ere -UE bihurtzen du, latinetikako «-ONE(M) / -TIONE(M)» atzizkidun hitzen maileguetan izan ezik. Hauetan, bokal arteko «n» galduz, -OE egiten du: sermoe, trumoe, coroe, errazoc. 10. orrialdean datorren «pecatuco ocasino urrecua» moldiztegiko hutsa edo eta konturatu gabe itzuri zaiona dela esango nuke. Artikulua eransterakoan, lexema «e»z bukatzen den hitzetan bezala, -IA egingo dute, bai Frai Bartolomek eta bai inguru honetako idazle zahar guztiek: «bide» bidia, «etxe» echia egiten dutenez, «ocasinoe» ocasioia, «erliginoe» erliginoia (142), «diversinoe» diversinoia, «devocinoe» devocinoia. Baina erantzuten jaceu».

-EA ere, esan dugunez, ez du onartzen, eta -IA egiten du beti. Jatorriz -IA denean, yod bat tartekatzen du -IJA, baita hitzbarnean ere; «oren ondoko bokala edozein delarik ere, beti tartekatzen du yod hori: «vijamoneco» (57); «tercijuan» (63, 107); «juicijozcoc» (36). Liburuan zehar, hiru hitz bakarrik aurkitu ditut jatorrizko -IA bikote horretan yod-ik tartekatu gabe: NEURRIA (5), PROVINCIACO (62), GUZTIA (hau sarri agertzen da eta beti yod-ik gabe).

Jatorriz -UA denean, behin eta berriro errepikatu dugu loturazko «b» edo Wau deritzona tartekatzen duela. Beraz, lexemaren bukaera «u» duten hitzak eta «o» dutenak ongi bereizten ditu. Adibidez, harentzat argi dago «desonestu» dela hitza eta ez «desonesto», DESONESTUBAC (100) egiten bait du.

Bokalen bikoizturak

Goiko eskeman ikusi dugunez, «a» itsatsiak eragiten du, kasurik gehienetan, bokal bikoiztura, inguru honetako idazle zaharrek lexemaren amaierako «a»ri eta deklinazio-atzizkikoari, bieci eusten bait diete: AA singularreko inesiboan plazaan, baita pluraleko nominatiboan eta ergatiboan ere nescaac.

EE pluraleko genitiboan: nesqueen, echeen eta pluraleko tokizko kasuetan: placeetan, placeetaco, echeetaruz etab. Bikoiztura hau, jakina, «a» itsatsia dutenetan eta lexema «e»z bukatzen direnetan egin ohi du. «A» itsatsia dutenetan zera gertatzen da:

-A + e = -EE ematen da: plaza + etan = placeetan. Gauza bera gertatzen da aditz-izenetan ere: OLG^AU + ET^{A(N)} «u» galdu eta OLG^AETA(N) = OLG^{UE}ETA(N). Hala ere, arau hori ez du beti betetzen, akatsik gehienak, bikoiztura larregi sartzearenak izanik: cereguineen, laneetan, gueijeenac, santubeen, Cristinaubeen, zorrotzeenac, indartsubeenac...

Gehiegizko bikoiztura hauek adizkietan nabarmentzen direla esango nuke. Analogiak okerbidera daramala dirudi zenbait kasutan. Adibidez: EGUITEN DAVELA PECATU (hark), baina EGUITEN DAVEELA PECATU (haiek): «ala pecatu mortala, ala veniala eguin daven» (98) (hark); baina «plazaan piestia eguiten daveenac» (53) (haiek). Kasu hauetan, «u»ren eraginez ondoko bokala gradu bat ixten denez gero, bikoiztura bereizgarri da, baina beste batzutan, honen analogiaz edo, bikoiztura bear ez denean egiten du... Iraganean ez da ixten, beraz, ondoko bikoiztura lekuz kanpo dago: «ezda esaten Apostolubac saldu eveela, ezpada Apostolu batec saldu evala» (167).

II: «i» bikoitza, «eguija» hitzean agertzen da, baina ez beti. Hipotesi bezala, balio balu, zera esango nuke: Hitz honek «a» itsatsia du; beraz, Frai Bartolomeren arabera, «eguija» eman behar harko luke forma mugatuan eta «eguija» mugagabea. Nominatibo mugatuan, -IA osotzen duen «i» hori lekuz aldatzen dela esango nuke; atzera pasatzen dela, alegia: EGUIJIA = EGUIIJA.

UU: LUUR hitzaren bikoiztura adierazkorra izan daiteke. Silaba bakarreko hitzetan edo eta behintzat egitura motzeko hitzetan ageri dira beste bikoiztura esplikagaitz batzu ere, eta ez ote da hitzaren egitura ahul eta motza markatzearen, indartzearen...?

LUUR, LAAR, CHAAR... denak dira, berez, silaba bakarrekoak; egoera zaharra birrezartzera joz gero, azken hau ZA(H)AR hitzaren palatalizazioaren ondorioa izan daiteke.

Beste zenbait kasutan, edaARI, lotsaARI hitzetan, adibidez, erroaren marka eta atzizkiarena hobeto bereiztearren izan liteke.

«Dantzan» hitza bietara dator: «dantzan eguin» aditz-multzoa denean, bikoizturarik gabe; inesibo arrunta denean, berriz, «dantzaan» edo «danzaan» (157).

Behar ez denean, bere idaztaraua bete gabe, bikoizturak egitearen zioak hauek izan daitezke:

- Hitzak «a» itsatsia duen ala ez ziurtasunik ez izatea.
- Adizkietan batez ere bikoiztura bereizgarri eta beharrezko dutenen analogia.
- Egitura motz eta ahuleko hitzak indartzea.
- Hitzaren erroa eta atzizkia hobeto bereiztea.

TS edo TZ, S edo Z bihurtzea

«Dacuszu» eta «deutschu» etimologiari gehiegi atxekirik jokatzen zuelako da.

-ZAT / -TZAT prolatibo kasuaren marka da bietara darabilena. Aipaturiko besteei buruz hona Luis Mitxelenak dioena:

Detrás de l, n y en menor grado de r la oposición se neutraliza, aunque las realizaciones de los archifonemas son africadas en unas partes y fricativas en otras. En guipuzcoano (y al menos en partes del alto-navarro, labortano y vizcaíno) se pronuncia tz, ts (y tx) detrás de esas tres consonantes: galtzak «pantalones», in-tsentsu, kontzientzia, paltso, pentsatu, pulstu, bertso, etc. (...)

En el siglo XVI Landucci escribe, por el contrario, consecuentemente ç, s detrás de n, l, r, mientras representa las africadas generalmente por sç: arça, «oso», çamalçaya «mulatero», ençun «oyr», erançun «responder» (...).

Geroxeago Sauguis zuberotarraren idazkera agertzen digu. XVII. mendeko idazlea dugu hau eta «r»ren ondoren ç edo z, s idazten du batzutan, baina «tz, tc beste batzutan: «n» eta «l»ren ondoren ç edo z, s etab. Leizarragak ere jokaera berdintsua duela diosku Mitxelenak.

S edo Z, TS edo TZ bihurtzea

Honetaz ez dago ezer idatzirik nik dakidala. Egitura ahuleko hitzak dira hauek ere eta behar bada indu edo markatu egin nahi izango zuen. Dena dela, oraingo euskara mintzatuan ere horrelako arrastoak aurki daitezke: «erretza» entzuten da eta ez «erreza»; «barritz» eta «barriz» («en cambio» adierazteko).

«Atseetia» (16) ez nahasi «asetu»rekin, hark atsedendu esan nahi du eta. Orain ere horrelaxe esan ohi da, bokal arteko «d» galdurik.

Fonetikako berezitasun batzu

«Begaz» ez «beraz»; «gobait» ez «gogait»; «bagoz» ez «bada-goz»; «baquidaz» ez «badaquidaz»; «atseen eraguin» ez «atseden eragin», «ezin legui» eta «ezin lei» ere bai; «arian da» ez «arik eta»; «larga» ez «laga»; «cemaija» baina gehienetan «zamaija»; «arin on» ez «adinon», «iruneko zapijac» ez «iduneko zapiak»...

Gehiago ez luzatzearren, darabilen euskarari buruzko aipamentxo bat. Badut lantxo bat Frai Bartolomenen erromaniko kutsuko esaldiak ikertuz. Baina hemen beraren hitzak jarritz amaituko dut, berak adierazten bait du zergatik jarri dituen hainbeste erdal hitz:

«Esan batzuc imini ditut gogo bagaric, gueure Eusqueraco verbeeta nausi, maite, zaar, gaztetu, gozo, prestu, ugarida (ugarija) gueure erruz, ervesteti etorrijac. Eusqueria berez aberatsa da, baguenqui ondo. Gueuc Eleisa guizonoc verba ascotan naastau, eta ezaindu dogu Eusqueria. (...) Cristinautzaco icasijan dira euscaldun gaistuac. Ezda au eusqueriaren erruba, ezbada gueuria. Ta, ain dauqueez ija artubac erdeera, edo latin verba batzuc ece, curaquin ezbada, aituten ezdavee ondo dotrinia, edo cristinautzaco eracutsija. Onen bildurra arren, imini ditut erveste verba batzuk Icasiquizuneetan. Bada Cristinautzaco eracutsijan zucen aituten emotia leenago da, verbeetan eracustia baino. Aleguinaz, ta derichadanez, guichitu ditut asco. Ta gueijago guichitu gura

nituque, asmau dodan saila amaitu orduco» (Icasiquizunac I, VIII-IX orr.).

Bego garbi bizkaiera zaharraren idazlerik bikainenetariko honen ohorea! Eta zuri, irakurle, honaino irakurtzeko iraupena izan baduzu, bejon deizula.

Luis Baraiazarra



**ESTUDIO
FOTOGRAFICO**

ARGAZKARI

*Ezkontzak - Argazki gaiak saldu - Argazki-aldaketak
Lauki-ertz ipinketa - VIDEO - Plastifikatzeak
Fotokopiak (Txikitzeak)*



FARZEL S.L. VIDEO PROFESIONAL

<p>San Miguel kalean, 14 Urrut: 673 0509 48340 Amorebieta</p>	<p>Trañabarren, 13 Bloque 1-4 Urrut: 681 1009 48220 Matiena (Abadiano)</p>
--	---

JUAN MANUEL SASUATEGIAVISA: 444 3500 - Abonado 868